

Edurne Pasabanen historia

Euskal mendizaleak hitzaldi bat eskaini zuen Donostiako campusean, gaitasun generikoei buruzko (talde-lana, lorpenerako orientazioa, ahozko komunikazioa, planifikazioa) ikastaroen hasiera zela eta. Ikastaroak Donostiako campuseko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko gradu eta gradu bikoitzetako bigarren mailako ikasleei zuzenduta daude. Edurne Pasabanek bere prozesu pertsonalaz hitz egin zuen, bere helburuez, bidean aurkitutako zailtasunez, taldean lan egitearen garrantziaz, etab.